

Txillardegi

Idazlea

Jon Etxaide aintzindari

■ Baiezkoa emana nion Xabier Mendigureni bezperan. Baina ustegabeko gripe batek aldarazi ditu nire planak, eta... ezin mahai-ingurura joan.

Eta Jon Etxaidek artikuluska hau eta gehiago merezi dituen segurantzian, prentsa bidez bederen pentsatua neukana kondatzera deliberatu naiz.

Pasadizu adierazgarri batzuk agindu nizkion. Eta horietxek izango dira lerro xume hauen mamia.

Jon Etxaide 1947-1948 inguruan ezagutu nuen, Donostiako Parte Zaharrean. *Agur Xiberua* khantorea abertzaleen artean ahapeka zabaltzen zen urte idor eta hits haletan. Ez genuen ezagutzen Etxahun barkoxtarra, eta Etxahun iruriarra ere ez. Euskaraz ere ez genekien Donostiako gazte abertzaleok!

Jon Etxaidek biak ezagutzen zituen ordurako; eta *Joanakin* izeneko bere nobela famatuan, euskara bikainez kondatu zion Piarres Topet zoritxarrekoaren biziera. Etxaide aurretik zetorkigun: 27 urte berak, 18 nik 1947an.

Alas Torrea-ren kondaira zirrargarria erdaraz guk Arakistain-en obran irakurri ondoren, orduan euskaraz dastatzeko poza eskaini zion Etxaidek. Nekez irakurri genuen, hauxe da egia: euskaldun-berriak baikinena orduko donostiar abertzaleok (gu kaletarrok batez ere). Baina nekez eta Lopez-Mendizabal-en languntzaz lortu bagenuen ere, oso pozik.

Eta *Joanakin* joan, egia esan, ondoko urteotarako utzi genuen. Zailgegi zitzaigun.

Ezagutzen genuen Etxaide, hitz batez. Berak idatzitako liburuen bidez, arrestian esana dudanez. Baina tratuz ere bai.

Etxaidek euskarazko eskolak ematen zituen Parte Zaharrean. Portu kalean, ene oroimenak desbideratzen ez banau; erdi isilpean hartutako pisu batean. Ikasle gutxitxo zeukan Jonek, dozana erdi bat agian. *Reverendum* famatua pasa berria zen (1947: «Franco, sí; comunismo, no»); eta gerra-ondoko beldur orokorra nagusi zen Euskal Herrian.

Eta Etxaidek (abertzale gisa, gartzelan egona zen ordu-rako) ez zien bere *borroka pertsonala* ikasleei izkututzen: «nire familia española da», aitortu ohi zien deplauki. Jon abertzale militantea zen.

Ignazio M. Etxaide, aita, Euskaltzainburua izana, *integrista* zen; eta Ana Maria arreba, gauza ezaguna denez, Opustar buruzagia da Iruñean. Baina euskaltzalea da, hau zalantzarik gabe: aita euskaltzalea izan zen bezala.

Hitz egiten hasi orduko, nabarmendu egiten zen gure Jon. Lapurtar buruzagien ahoskera berbera zeukan, eta *garatismoz* mintzo zen. Eta «horrek eztu giARRerik» esa-

ten zuenean, harritu egiten gintuen denok 'r' gogor eta ubulare horren azkarrek.

Etxaidek bidea urratu zion guri alderdi askotatik.

Zuberoaren ezagueran, adibidez, aintzindari aparta izan zen: *España*-ko hesparruan bizi ginen gazteoi, Iparaldean, *bestaldean*, poesiarik handieneko eskualde bat badagoela azaldu zion, Etxahunen sorterria preseski, Xiberua. Eta mapa ere eskaini zion (*Joanakin* liburuiko 16. orrialdean), frankismo beteant!

Hori aski ez iruditurik, Euskal Herri osoaren mapa eder bat prestatu zion, paper bejelaletan, berak bere eskuaz marraztua eta toponimo guztiez euskaraz hornitua. Etxaidek orduan *Obras del Puerto de Pasajes* delakoan egiten zuen lan, Donostian, Idiakez-kalean edo; eta abertzaleen artean famatu egingo zen mapa hura, isilpean bakarrik hedatu zuen, jokabide horri zegozkion arriskuak hartuz.

Etxaide mendizale porrokatua zen orduan, eta harreman hertsia-hertsia zuen baserriarrek. Otzaurte, Igaratza, Aralar, iganderoko ibiltoki zeuzkan. Bere euskara aberats eta jatorraren gakoak, euskaldun herriarekiko harreman etengabe horretan du oinarria. Eta gaur ere badaukagu denok Etxaideren obran euskaraz hobeki ikasterik. *Joanakin*, *Gorrotza lege*, *Itasoa laño dago*, euskal harrobi galanta gaur ere. Gaur batez ere, esango nuke.

Etxaidek ireki zuen, batez beste, euskal nobelaren saila. Eta ohore hori aitortu behar zaio. Gero etorri gara besteok. Aintzindaria bera izan zen; eta ezinago egoera zailen. Etxaide hasi zenean Euskaltzaindia bera debekatuta zegoen; eta ez zegoen ikastolarik, ez egunkaririk, ez euskal irriti edo telebistarik, ez Laboarik ez Atxagaririk, ez deusik ere. Etxaide bai gizon bakarra eremuan.

Eta eragin handia izan zuen gudan, nigan bederen. Nire *Peru Leartzako* liburuaren izenak berak, zuzenean darma Etxaideren *Hanasei seme Euskal Herriko* izenekora. Eta hau egiaztatzea erraza da: nire *Peru Leartzako*-aren aurreko *Oharreen* (1960ko Otsailean) hauxe irakurtzen baita: «Euskaltzaindik 'h' ari buruz iritzi tinkorik oraindik eman ez duelako, neurekixa darabilzkizit auek; eta Etxaidek eta gaurko beste zenbait idazlek bezala...» *Corpus*-aren mailan. Jon Etxaide hartua genuen eredu.

Hori dela-eta, eta Jonen bidetik orpoz orpo, *onek eta ustu* idazten genuen bai; baina *nahasi* eta *ahalsu*. Hirurogeien hamarkadaren haseran ginen...

Baina bere jokabide praktikoa ere eragina izan zuen Etxaidek. Oso gogoan dut Parte Zaharreko Agote Taberna abertzale famatuan halako batez (1948 inguruan) berarekin egin nuela topo. Nik euskaraz egin nahi, baina... ezin. Ez nekien! Erdaraz hasi nintzaion. Eta erantzuna ez zen oso luzatu: bizkarra eman zidan, eta kitted! Zenbat aldiz ez diodan Agoteneko purrustada hura eskertu! ■

Mixel Berhokoirigoin



Herri ur, hats ...

Euskararentzat Herri Urrats, biziarrentzat ura eta hatsa bezain garrantzitsua ote da? Agian bai.

Hamar milaka bilduko dira alabainan jendeak Senperen: abertzale, euskaltzale, eta beste. Etorriko dira batzuk eginbidez, anitz motibazioz, eta zati bat kuriostatez. Eta bai! Holako arraskasta duen egun bat ikusi behar da nolako den, ez? Aldi bat bederen! Eta, gertatzen dena da gehienetan, oso egun gustagarria, alaia, ageri dela, euskal giro hori ezagutzen ez duenarentzat ere; aldi bat izan eta, ondoko urtean berriz enbeia du etortzeko, eta... nork daki batere funtsik gabe hasi abentura hori noradino joanen den?...

Dena den, dudarik gabe, egun hori garrantzitsua da euskararentzat. Euskal Herriak baikik ez ditu antolatzen ahal holako bestak! Egia da, Euskal besta horretan parte hartetik, eta euskara eguneroko erabiltzera badela bide... Baina, batek bestea ekar lezake!

Nire aldetik, laborari eta laborantzako aktore bezala, beste lotura berezi bat ikusten dut Herri Urrats-ekin, eraiki nahi dugun Euskal Herriari buruz. Egia baldin bada ez dela Euskal Herririk, euskararik gabe, egia da ere ez daitekeela izan Euskal Herririk, edo bederen nahi genukeen Euskal Herririk, laborantza iraunkor, kopurutsu eta herrikoiki gabe. Izatez alda liteke Euskal Herria, laborantza industrializatu eta kontzentratu batera lerratzen bagina. Hizkuntza galtzen bezainbat zauritua liteke gure Herria, gaurko laborantza modeloa galtzen balu...

Euskararen geroa, eta nahi dugun laborantza, biak lotuak dira, gaur hartu behar diren erabaki politikoek, bainan ere norberak bere heinean egin behar dituen hautuei.

Kulturak, ez badu hutsa izan behar, ekonomia herrikoiki bati lotua izan behar du. Ekonomiak, ez badu korporatibismoa izan behar, kulturari lotua izan behar du...

Kornera

Mikel Elorza

Oihala beltz

■ Osa liteke zarzuela bat, operatxo bufoa Europako agintarietako euroaren kontura izandako martingalekin, bankuko zuzendaria hautatzeko lehia egoskorrekin. Teatro absurduaren idotik, antzezlan eroa antola liteke Londresen, Netanyahu eta Arafat toki eta egun berean bilerak egiten baina elkarrekin bitzera asmatu gabe. Opera kaskar gisa, drama Doñan koka genezake, agintariak aria astunak kantatzen betiko tonuan metal are astunagoek lurra jaten duten bitartean.

Ikuskizun askorekin has genezake astea, baina edozein izanda ere aulki bat hutsik utzi beharko genuke Bilbon. Sevillan jaiotako Luis Iturri bitokarrak betiko utzi baitu oholta. Akelarre talde aitzindariaren ardatz, Arriagako azken hamar urteetako motorea, Brecht, Durrenmatt, opera, zarzuela, dantza eta musika bizi izan eta oro har ikuskizuna bizitza egin zuen aktore eta zuzendariak azken oihala beltzez jaitsi zaio. Gogorra lanean eta baita bizitzan ere, bere aulkian hutsunea igarriko da.

L A P h I T Z A

